

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

4415

AGINDUA, 2022ko irailaren 27koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita Fundación Integrando izeneko fundazioaren estatutuetan egindako aldaketa, egoitza aldatzeari buruzkoa.

2022ko ekainaren 6an, eskabide bat sartu zen Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailean, Fundación Integrando izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko, egoitza aldatzeari buruzkoa. Fundazioaren patronatuak 2022ko maiatzaren 19an erabaki zuen aldaketa, eta eskritura publikoan gauzatu zuen 2022ko maiatzaren 31n, Barakaldon, Álvaro Parres Navarro notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 1.459). Eskabide-idazkiari espedienteko dokumentazioa erantsi zitzaion.

Dokumentazio horren bidez, fundazioaren estatutuetako 4. artikulua aldatzen da, fundazioaren egoitzari dagokionez.

Fundazioaren egoitza helbide honetan dago: Luis López Osés 18, lonja, 48930 Areeta, Getxo (Bizkaia). Aldaketa hau egin ondoren, hurrengo helbide honetan egongo da:

Las Llanas zumarkalea 3, behea, 48910 Sestao (Bizkaia).

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau Agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorritz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1.n) artikulua, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3.1 artikulua.

Espedienteari funtsezko iritzitako datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak. Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea Fundación Integrando izeneko fundazioaren estatutuetako 4. artikulua aldaketa, egoitzari buruzkoa, Agindu honen datarekin, 2022ko maiatzaren 31n, Barakaldon, Álvaro Parres Navarro notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan ezarritako zehaztapenekin bat etorritz (protokolo-zenbakia: 1.459).

2022ko urriaren 14a, ostirala

Aurrerantzean fundazioaren egoitza helbide honetan izango da: Las Llanas zumarkalea 3, behea, 48910 Sestao (Bizkaia).

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez daiteke Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 27a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.